

POETRY IV

(Poetizatutako musika piezak)



Testuak: X. Galarreta
Euskarazko itzulpena: Amaia Imaz

Lege Gordailua: SS- 221/07

Midi fitxategi hauek Marjinalia Bildumaren 88. fitxategian daude jadanik (“Nire teklatu txikia” izenekoan).

A Candura – F. Burgmüller



A Candura - F. Burgmüller.mid

Sartu nota hori bere oroimenean,
bota dezala gauero bere oroimen
egituratutik,
kamaina zikinean etzana,
oroimenari emana,
zure izena milaka aldiz
idatzia eta ezabatua,
erremediorik gabe hautsia,
baina arantza ankerra
barne altzotik
atera ezinean.
Oroitzapenari izena jartzeko
gogoia ere ematen du,
data,
elkar utzi zuten
zorigaiztoko egunarena.
Eta, orain, oroitzapena hor dago,
harrituta,
harrituki hila,
Shakespeare bera baino
anglosaxoiago.
Maitasun lohi hau,
betiko maitasun lohi hau beti,
bere (gizonaren) oroimenean,
kamaina zikinean etzanik eta
oroitzapenak itota
azkenetan eta hiltzen dagoen

nostalgiak (emakumearenak) zulatutakoan,
bera,
aurpegira inoiz begiratu ezin izan zuena.
Eta zer egingo du orain?
Kontua ahaztu besterik ez.
Negar egin du,
aurpegia esku artean
ezkutatu duela.

A limpida corronte – F. Burgmüller



A limpida corronte - F. Burgmüller.mid

Lasterrak maitasun galduen irrika
herrestan eraman zezan utzi zuen,
gainerakoak bezala,
bekatuzkoa zen putetxe baten
inguruan zimeldutakoena.
Lasterra etorri zen eta,
gainerakoak bezala,
garbia eta satsua zen
maitasun haren
aurreiritziak eraman zituen.
Lasterra bizkorra zen,
eta munduko leku guztietako
maitasun guztiak
zeramatzan.
Berdin-berdinak ziren,
maitasun horiek guztiak,
milioika zeuden,
bakoitza
tanta bat zen uretan,
eta bertan hondoratzen zen.
Eta isla bat zebilen,
itsasoan galduta bailegoen,
etsi antzean eta
lizunkeria susmagarriz ñirñirka
–zer litzateke maitasuna lizunkeriarik gabe?–.
Lurrak agur esan zion laster
oldartsuari,

eta lasterrak, agurraren seinale...
eta errenditzearena,
zapia goratzeko beharrezko
denbora besterik ez zuen.
Lasterra pasatu egin zen azkenean,
osorik igaro zen,
eta gero,
ez zen ezer geratu.
Amaiera baino ez.

A Pastoral – F. Burgmüller



A Pastoral - F. Burgmüller.mid

Atximur egin nion
espero ez zuenean,
popatxoan.
Ordu erdi luzez
barrez lehertu zen,
popatxoan egin nion
atximurraren kontura.
Pitxi-pitxia zen.
Gona
jaisten zuen
bezain erraz
ematen zuen bere maitasuna.
Ez zuen ezer espero
eta, horregatik, negar egiten zuen ezer aurkitzen ez
zuenean,
eta beste horrenbeste
itxaropen hutsal guztiak
bete egiten zitzaizkionean.
Etzana utzi nuen
eta ez esnatzeko
esan nion etxekoari.
Hungaria urrunean
sartu-irten azkarra
egin behar nuen,
baina ez nintzen luzatuko.
Bitartean,
lo egongo zen,

nire ihesaz ohartu gabe.
Zeruan
urratua egin zen,
zortzi hilabete eta egun pare baten buruan
–goiztiar ederra,
zin dagit!–
larrutik ordaindua.

Adagio - Albinioni



Adagio - Albinioni.mid

Bere begiradaren barrean
ahaztutako samurtasun
hitzak errepikatu zituen,
eta min gozo eta aldi berean
mingotsa sentitu zuen
bularrean, eta bere bihotza erre egin zen
ia ahazmenean
etendako muxuen eta
agurren su berankorrean.
Hitzak bere ezpainenara
igo ziren eta muxu gozoak,
marrubiak bezain potoloak,
loratu egin ziren. Eta han,
halako zentzugabekeriaren erdian
maitasun zaharra irrika aurretik eramaten
sentitu zuen berriro,
eta likits eta pozez gainezka,
lur jota igotzen,
minak uzten zion neurrian.
Ezkonberriek abegi egin ahala,
eskuak askatu zituzten,
betirako izango zela
jakin gabe oraindik, eta azaroko
gau hotzean
bere izena gogoratuko zuela beti...
hau gogoratzen duenak bezala,
osotasuna bihurtu den ezereza.

Baina, berez, onena
falta zen: bularreko mina,
min bizia bihotz gorri eta
pilpiragarrian sutan,
galdutakoaren minez,
porrota madarikatzen,
beharrezkoa ez zitzaion zama guztia
kareletik botatzen.
Ontzia zerumugan urruntzen den gisara,
maitasun iheslaria
itsasertzetik itzuri zen, eta, poliki
baina halabeharrez, Hadesen lurreraino
arraun egin zuen,
ahazmen guztien aberria dagoen tokiraino.

Arabescos – F. Burgmüller



Arabescos - F. Burgmüller.mid

Atzera begiratu zuen
eta begiradak harria bezain
bular gogorrekin topo egin zuen,
eta bere titiburuekin,
bi bekainen artera begira.
Ontzitik salto egin eta
igerian ihes egiteko
denbora izan zuen ozta-ozta.
Berak (emakumeak) museo bat fundatu zuen
eta berak (gizonak) momiak bidaltzen zizkion
Kairotik.
Berez,
elkar maite zuten.
Eta harrokeriak bakarrik
eragozten zien egindakoa
elkarri aitortzea.
Behin
–haizeak gogor jotzen zuen
zuhaitzetako adarren kontra–,
zerbait berezia bidali zion:
bi momia txortan
(jakina, hilik).
Jarrerak
axola zuen funtsean,
maitatzeak eta maitatua izateak
berak baino gehiago.
Museoak behea jo zuen,

eta, berak (gizonak), denborarekin,
ere bai. Eta zahar okituta ordurako,
ezkontzeko eskatu zion.

Baina berak (emakumeak) jo eta pasa egin zuen
ordurako.

Desengainu hura azkeneko ezbeharra izan zen.

Sarkofagoan itxi zen

eta ez zen berriro irten

bi mila zazpiehun eta hogeita ez-dakit-zenbat urte
pasatu ziren arte.

Edo gehiago...

Barcarola – F. Burgmüller



Barcarola - F. Burgmüller (Ander Galarreta 9 urte).mid

Arkakuso madarikatu bat zuen
nonbait. Nolanahi ere,
min egiten duen tokitik gertu. Hor nonbait,
bihotzean...
Maiteminduen leinuak
amaigabea zirudien.
Behin, hainbeste zeuden ibaian besarkatuta,
bitxiloreak ziruditen belarretan.
Bat-batean, olagarro erraldoi bat
uretatik atera zen, eta errebes horiek guztiak
jan zituen. Entzun zuten
azken oihua izan zen: “Begira,
olagarrotxo bat!”
Osorik irentsi zituen, bihotz eta guzti,
eta maitasuna haizeari txistu eginez.
Bazuten arrazoirik beldur izateko,
arkakusoa aske baitzen
hileta erabakitzeko.
Maitasun askea arriskutsua da,
ausartarentzat bingo bat merezi duen arren.
Hurrengo udaberrian
gauza bera gertatu zen.

Innocencia – F. Burgmüller



Innocencia - F. Burgmüller.mid

Bular zuri eta arrosakarek
negu zuri baten
izaretan bira egin zuten.
Haizeak bortitz jotzen zuen kanpoan.
Eta oldarraldiek
negar eragin zioten somier gaixoari.
Lanpara, behean, bazetorren
halako zabuaz.
Gelan, bi bular iheskorrek
aztarna zuria utzi zuten
etengabe.
Eta izotzak irakin egin zuen mantaren azpian.
Zer beroa, ulu egin zuen neskameak
konortea galdu baino lehen.
Egun hartan txurrorik gabe
gosaldu zuten,
baina aho betean.
Eta kalabazarik afaldu ez bazuten ere,
erreklamazio liburua
garbi gelditu zen.
Kaltetu bakarra, neskamea:
sei edo zortzi aldiz bortxatua,
korderik gabe.
Esneketari batek, (indi)pikua baino xaloago,
gillotinan ordaindu zuen
existitzen ez zen zorra.
Intziri egiten zuen, gaixoak,

trufa eta iseka artean,
tokiz kanpoko bukaeragatik,
eta borreroak ere
egin zuen ikara
lehenbiziko aldiz.
Barreak jota.

Progresso – F. Burgmüller



Progresso - F. Burgmüller.mid

Iletik helduta zuen.
Bitartean, berak zakila
mauka-mauka jaten zion oroimenean.
Baginako ezpainak busti
zituen pentsatzean.
Azken oroitzapenak ziren,
Sexua hil aurretik.
Ondoren, gogaitzeak eta pipiak
esku hartu egin zuten, nolabait.
Behin, ilargiari zerutik
ñabardura dramatikoaz erortzen begira,
hurbildu egin zen hankarteak,
ordurako nahiko klaskatuak,
baina erresuminik gabeak,
uzten zion tokiraino.
Errebeskeria handiak harritu zuen,
lagunik ezak
eta barruko zitalkeriak.
Horrek guztiak ez zuela merezi
pentsatu zuen, baina...
nork sinetsiko zion?
Bidaiariak ezin du pentsatu
bere izen ona galdu duela.
Eta gurpilak, bira egitean,
ez du barkatzen ezordua.
Gauzen natura hila
lehen ametsaren ondoren heltzen da,

eta orain hitz egiten duenak
bihar hitza desegiten du.
Are okerragoa da zentzugabekeria baino
(arte zuhurraren
adierazpideetako bat).
Konturatu nintzenerako,
ilundua zen...
erremediorik gabe.

Danubioko uhinak



Danubioko uhinak.mid

Gaur gauean tangoa dantzatu beharko banu,
dantzatu egingo nuke.

Labanak, liskarra, odola,
mozkorra, adarrak, hilketak,
ihesak, tiroketak, kartzela,
arrozteak...

Zera esan nahi nuen,
ospa egin.

Horretan datza
alde egitea.

Hanka egitea.

Desagertzea.

Galtzea.

Zure hiria utzi

eta beste bat besarkatzea azkenean,
non arrotz hilko zaren.

Hori dela-eta arrotzasuna.

Egia esan, bizitza osoan bizi izan naiz
arrotz.

Guztiak arrotzuta, guztiak,
bizi izan dudan guztiak,
baina, batez ere,

bizi izan ez dudan guztiak.

Oraindik ez dut ulertzen

nola izan naizen gauza hainbeste gauza
ez bizitzeko.

Ametsetan egongo nintzen.

Bai, horixe izango zen seguru asko.
Bizitza ametsetan eman dut,
errealitate baten irrikaz,
nire alboan pasatu dena
arima herratu bat pasatzen den bezala,
gutziz ikusi gabe,
baina, aldi berean,
presentzia hori sentituz,
ezezagunaren beldur,
errealitatearena,
ametsaren amaierarena.

Romance – Kozeluch



Romance - Kozeluch.mid

Maiteki zetorren emaztegaia,
zuriz, bolizko bularrak agerian,
eta arrosazko eta anbrosiazko titiburuak,
katedral guztiak dar-dar egin zuenean zetazko
oinen azpian, eta apaiza isildu.
“Miraria!”, oihukatu zuten petrikilo guztiek.
Eta irribarre egin zuen, alai,
harro, pozez gainezka,
bere garaipenaren eta udaberriaren
igaroaren
berri duen jainkosak bezala.
Aldarera iristean, ardo sakratudun
kopak isuri egin ziren,
alai, kobrezko lurrean,
eta, arrazoirik gabe, likidoa
lurrak xurgatu zuen.
“Miraria!”, oihukatu zuten bat eginik
petrikilo bekaiztiek
–artean, emaztegaiaren lagunek
ez zioten begirik kentzen krabelin
gorrizko sortari; zaharoa
ateratzen zen bertatik–.
Emaztegaiak sabela laztandu zuen
eta orduan hasi ziren
zorabioak
Bi mezamutil airean atera zituzten,
eta beste bat aitorlekutik,

eskuak zikinduta
–arnasketa artifiziala behar izan zuen–.
Senargaia pozarren zegoen.
Emaztegaia ikusi eta utzi egin zion,
bazekielako alferrik zela saiatzea ere.
Emaztegaia hegan zihoan ordurako tenpluko
zutabe batetik bestera,
eta klitoritik kristal
hautsa-edo zerion, elizako bankuak ere
betetzen zituena.
Barre egiten zuen, barre, barre...
Eta zer nolako zoriona. Eta inork ezin zion utzi
sexua bertan laztantzeari,
aldare sakratuaren aurrean,
baina ez zen inolako
lizunkeria edo lohikeria.
Ama Naturaren
maitasuna besterik ez zen,
gure sentimenduen
azalean ere
sartu zena,
ordura arte deuseztatzera
eta akitze hutsalera
kondenatutakoenean.
Azkenik,
emaztegaiak esan zuen “Bai, nahi dut”.
Eta masail gorrixkak
graziaz eta ezinegonez borborka zituen.
Orduan, petrikilo maltzurrek
kotsolagailu elektriko sorta
bota zuten, ezkonsaritzat, lehen
andrearen oinetara.

Eta hark, algara alai eta naturalaz,
guztiak kolpe batez desegin zituen,
aquaplaxezko hautsontzia baino
kedartsuago utzirik.
Hiru hilabetera dibortziatu ziren,
baina ordura arte primeran pasatu zuten.

Malko iheskor bat



Malko iheskor bat.mid

Nonbaitetik badator
oroitzapen ezdeus bat,
gizakien
bizitza bezalakoa.
Nonbaitetik dator,
honezkero existitu egiten ez zela uste genuen
leku batetik, betiko
itxi zela
uste genuen leku batetik.
Alabaina, bidezidorra,
sastrakak estalia oraindik,
eta denboraren joanak,
bertan zegoen,
bertan segitzen zuen,
utzi genuen tokian,
utzi gintuen tokian,
agian,
azkenekoz.

C. Gurlitten abesti bat dela eta



Voyage de nuit - C. Gurlitt.mid

Gure bizitzak jatorritzat,
aberritatzat eta ahazmentzat dugun
ezerezera lerratzen dira
ausart.
Elur krudeletan
galderek
erantzunik gabe bira egiten dute.
Eta bisutsetan
irteeraren
eske gabiltza,
aspaldiko egun batean
abiatu ginen
leku berera,
garai berera
eramango gaituen
ate bakartiarena.
Aldapa ireki egin da,
eta gure bagaje guztiaz
erori gara,
amildegiaren
ertzetan utzirik
genekartzan
gauza eskasak,
heriotzaranzko,
zain dugun
betikotasun bakarreranzko,
abandonatu behar ez genukeen aberriranzko

–aukera izan al zen, akaso?–,
eta nostalgia iturri aldaezineranzko
–beti, beti lagundu gaitu
jaitsiera bizian–
bidaia luzearen
lekuko isilak.

Melodía en Fa - A. Rubinstein



Melodia en Fa - A. Rubinstein.mid

Tristura balitz
errege batek, Midasek, agian,
erbestera abiatu
aurretik baztertu zituen
hitzen urrea.
Hitzak balira
errege baten, agian, Midasen
tristurarenak,
erbestera abiatu
eta triste, urrez,
lurrezko eta erbestezko hitzak
utzi zituenarena, agian,
Midas erregeak, agian, bidean
urrez, tristuraz eta lurrez
gabetu zituenak, erbestearen hasierara,
amaierara iritsi baino pixka bat lehenago.
Eta hitzen urrea,
hondartza hutsaren
ikuspegian betiko
abandonatuta, erregeak, agian, Midasek,
erbestean eta triste,
hitzetan eta dirdiran,
gainerako urrea: oroitzapenak.
Eta guztia emango luke urre
distiratsuaren dirdiratik ateratzeko, ezdeusetik,
irabazitako galbidetik,
erbesterako betiereko bidean...

Agur, Midas, Ezerezaren errege,
bedeinkatua izan bedi zure sabela,
lurraren seme zintzo.
Itzuli, itzuli beti hitzetara,
bertan bakarrik sentituko baitzara
etxean! Eta itzuli!
Eta ez utzi inoiz itzultzeari,
urrundu egiten zaren bitartean! Oi, Midas errege,
eskatu ezin dizuguna eman,
utzi gozatzen zure tristuraz
berriro ere,
zure melankolia jainkozko eta apartekoaz.
Eta orain, hil erbestean,
urretik urrun, hitzetatik urrun,
zeure heriotzatik urrun,
zeruari begiratzen diozun bitartean,
sekulako galeraren ostean, gizadiaren
azken zeruari.
Agur, adiskide, Midas errege, agian,
seguru, bai, Midas distiratsu,
betiereko, dirdaitsu, urre garbi,
ezerez, erbesteratu...

“Tum Balalaika”

(Kanta yiddish herrikoia)



Tum Balalaika.mid

Tristura eskuez bildu duzu,
mahatsondoko mahatsa biltzen duenak bezala,
eta etorkizunari begiratu diozu,
iraganari begiratzen dionak bezala,
sentipen bera zenuela
(dagoeneko bizi izan duzun
edo bizitzeke dagoen zerbait
oroitzen ari zaren
irudipena).
Doinuak behin eta berriro
durundi egin du,
zeruan
ohiko
axolagabetasuna
jotzen duen urruneko
kanpaiaren
arrastoa utziz,
eskuez mahatsondoetako
tristura amaigabea
biltzen duenak bezala,
bertan pilatutakoa,
kapazuen dirdira
beltz eta basatian.

Menuet - J. Krieger



Menuet - J. Krieger.mid

Denboraren itzaletan
dantzatzen diren irudi ederrak,
iraganari
eskainitako aretoan.
Bular hauskorrek,
hautsiak, odolduak.
Begirada maltzurra,
itsua, aseezina.
Amaitu gabeko, ezin amaituzko
denboraren itzaletan
dantzatzen diren irudi ederrak,
Aita Denborak
doilorkeria ehuntzeko
darabiltzan hitz
jokoak saihestuz,
intsektua
amaraunean bezala,
harrapatu egin gaituen
lakioa.
Argizarizko pausoz
orduarekin eta denborarekin
lotutako oroitzapen
irrealak mugitzen duten
irudi ederrak.
Irudi ederrak,
ezerezarenak eta loriarenak,
dantzari heroikoak,

eramankorrek,
denboraren
biktimak, nire gogo biziaren
esklaboak.

Minuet in A minor - H. Purcell



Minuet in A minor - H. Purcell.mid

Sarraila zuloaren beste aldean
paisaia hila, hutsala;
gainbeheratik ihesi,
nor bere helmugara,
arimaz betetako ibaiko ertza
(bizitzaren lilura,
Hadesean islatua).
Eta artean, zeruetan,
errekuntzako motor bat
sutan,
eta pilotu ausarta,
fularra lepoan
eta esku azpia
agur eginez
hegaldiari begira
gauden guztioi jakinik
azkena dela,
ez direla akrobazia gehiago izango,
ezta irteerak, ezta itxaronaldiak
eta estualdiak...
Sarraila zuloaren beste aldean,
paisaia hilean, hutsalean,
pilotuak gora egin du:
azken begiratua
eman digu, etsipenaren eta
ahantzuraren artekoa, heroikoa
nolabait.

Ziurtasunak

lekua erakutsi digu,
bere gorputza eroriko den
zuloa bera.

Eta azken akrobaziaz
zeruari itzuriz,
pilotua hodei artean galdu da,
infinitu.

Bihotza oraindik bortitz taupadaka,
sarraila zulotik irten gara
eta hurrengora presatu gara.

Minueto en G - J.S. Bach



Minueto en G - J.S. Bach.mid

Orrien marmarra
gelaren hondoan zirtakatu da,
baso ilun,
misteriotsu... bihurtutakoan.
Gaua sutan dago
izarretako txinparten azpian,
eta su beltzeko garrak
ortzian egindako
zulo zuritik ihesi doaz.
Itzalen siluetak
ezkutuan lerratu dira,
algara alaien multzo
isilaren artean.
Gauak aurrera egin du
estalkia herrestaka;
iratxoak isiltasunera
itzuli dira.
Gelak, azkenean,
egongela itxura du,
eta orriak laurdenak
besterik ez dira,
ametsez zikinduak.

Minuetto - W.A. Mozart



Minuetto - W.A. Mozart.mid



Minuetto - W.A. Mozart 2.mid

Ia mila urteko
gelditasunak zeharkatutako
egongela geldian
harrapatutako bilakaera
mamurtu du katuak begi urdinetan.
Erlojuak aldizkako
tiki-taka herrenka darabil,
inor izutzen ez duena.
Margolanak, kalbariotik
betiko okertuta,
paisaia monotono eta
harrituari begiratzen dio.
Katua, begirada urdinetik,
bazter batetik bestera aldatu da,
presarik gabe, jakinik
denborak oinkada bakoitzean
laguntzen duela.

Peine – B. Bartok



Peine - B. Bartok.mid

Zigarreta hautsontzian, kea dariola,
poesiak urratua:
poetena da
melankolia eta tristura!
Mundura jaurtitzen dituzte
ke eta hauts distirak,
eta hautsontzietan ahitzen dira:
poesia, ezerezero kondenatua.
Hautsontzia, zigarreta,
hautsa, kea...
Poetaren begiradak
su hartu du tabako industriak
prestatutako une honetan,
nork bere minbizia garatzen duenean:
hitzezko minbizia,
melankoliazko minbizia,
tristurazkoa,
mugarik gabeko
eta apaingarrik gabeko musikazkoa.
Zigarreta, hautsontzian;
eta kea, guztiz
inoiz
barreiatu ezean...

Sarabande - J. Pachelbel



Sarabande - J. Pachelbel.mid

Egongelan egiten du ñir-ñir, eder eta basati,
eta bolizko lepoa garaile, harro
dago
harrapakin osoaren gainean.
Labazko errubi
gorriak dir-dir egiten dio begiradan,
eta, bira ematean,
begiradak gainerako
begiradak zeharkatu ditu;
txalupariak algak
arraunaz bezala aldaratu ditu.
Lepoa –utzidazue esaten!–,
zisne lepoa, boli
zuria,
burgoi, harro,
leuna,
denboraren sutegian estanpatua,
betiko garaile
–ezinezkoa galtzea,
pentsaezina desagertzea–.
Lehenago ihartuko da denboraren
iragana, bera baino,
lepo zoragarria, leuna,
basatia, harroa,
hodei kumulua oinarria
zeruan.

Sarabande - A. Corelli



Sarabande - A. Corelli.mid

Biolinaren arkua, aizto
eta ezpata bihurtua,
behin eta berriro haragia
zulatzen, jolas
gaitzesgarri eta ankerrean.
Fidakor zautza:
uste duzu dagoeneko bukatu dela
mina. Baina berehala hasten da berriz,
gutxien espero duzunean.
Arkua biolinetik askatu da, eta haragia urratu du
berriro ere,
ebaki sendo batez zeharkatu.
Bertan zautza, odolduta,
hariak dar-dar egiten duten bitartean,
eta azkenetan zaude, patxadatsu,
lehenago ere bizi izan duzun
irudipenaz.
Eta arkua, zelatan betiere,
ziur berriro ere
erdibitu egingo zaituela.
Game over.

Sonatina del mar --A. Abril



Sonatina del Mar - A. Abril (Ander Galarreta 9 urte).mid

Panpinak bira egin du beti
harrituta dagoen manikiaren begiradaz
–Gepeto noiznahi atera liteke
hegaletatik eta alabatzako
izendatu–.

Ikusleek pasiorik gabe begiratu diote,
baina ez ezaxola.

Panpina-manikiak bira
eta bira egin du etengabe,
lepoa gorputzetik askatu
eta agertokian itzulikatu den arte.

Ikusleek arretaz baina (itxuraz)
zirrarak gabe begiratu diote
ikuskitunari. Gero, gaztaina
koloreko eta begi urdinxkako katuak
gorpuaren inguruan urrumatu du balakari,
eta, azkenean, bibotea buru
lokabearen aurka igurtzi du.

Ez da odolik, jakina
–gorroto dut gustu txarra, badakizue...–.

Dena zuria eta garbia eta aseptikoa da.
Agertokiak erietxe
ukitua du –agian, bada–.

Are gehiago, erizainek
badaramate erietxeko
ohe itzel eta sendoan.
Inoiz ez da aterako handik bizirik.

Badaki. Guztiok dakigu.
Baina ezjakinarena egin dugu.
Malkoak gorde ditugu
–debehatuta dago gertatutakoa
ikusi ez dutenei sufriaraztea, baina,
batez ere, debehatuta ahulezia
adierazpen oro–.
Panpina-manikiak, azkenetan, aurrera
egin du isilik gorputegirantz.
Bertan pausatuko da, argizarizko begiradaz,
gaueko hamabiak arte.
Orduan, zaindariak
azken erronda egingo du,
argiak itzaliko ditu eta
itxi egingo du...
hurrengo egunera arte.

Racconto di Fate - Kabalewsky



Racconto di Fate - Kabalewsky (Ander Galarreta 9 urte).mid

XVI.-XVII. mendea.

Zaldizkoa Europako lekuren
batera doa, nora ezean
zaldi gainean, eta, bidegurutzera
iristean, zaldiaren esku utzi du
bide berria.

Ez da ez zaharra, ez gaztea;
bizitzaren erdian
bizi da.

Begiradatik paisaia lerratu zaio,
begi huts baina
gosetiek irentsia.

Zubia gurutzatu du ibaiari
begiratu gabe ia,
eta, berehala,
bira eginarazi
dio zaldiari,
ibaiaren burutapenak
larrituta, nola izena duen ez jakiteak,
urei

begiratzen jakin ez izanak.

Nola izena duen ikasi du

–ez da erraza izan, mortu babesgabetzaile horretan–

:

Europa ezinbestean osatzen duen
ibai horietako bat da.

Ia ziplo erori da
jakin duenean.
Gero, zaldia zaharoaz jo du
eta jarraitu egin du Europako
lekuren batera bidean
(Europara, betiere Europara),
begirada hutsik baina goseti,
bakardadea eta
atsekabea jasaten dakien
zaldizko horietako bat.
Eta egunak apaldu egiten diren bitartean,
beti bezala,
aurrera jarraitu du,
hainbeste ukori
bizkar emateko prest.
“Erroma”, xuxurlatu du, “Italia...”.
Une batez, uste izan du badakiela
zein den helburua, inimiziazko
bidaiaren norabidea.
Ezer ez... Laster
abandonatu egingo duen
beste ilusio bat?